

60E/2026 Ebazpena, abuztuaren 17koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez *Gora-Gora Fest* kultur zikloa antolatzeko eta kudeatzeko kontratuaren esleipena onartzen da.

ERREFERENTZIA: Espedientearen kodea: 0005-CP01-2026-000038
UNITATE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko harremanetarako departamentua Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua Euskara Sustatzeko Atala Tfno.:848 426054 Helbidea: Paulino Caballero kalea, 13, 31002 , Iruña Helbide elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileraren ekainaren 8ko 26E/2026 Ebazpenaren bidez, *Gora-Gora Fest* kultur zikloa antolatu eta kudeatzeko kontratazio-espedientea onartu zen, eta 98.000,00 euroko gastua baimendu zen.

Lizitazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2026ko ekainaren 19an, eta, ondoren, hil bereko 24an, Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

Lizitazio-prozedura irekia Nafarroako Lizitazio Elektronikoko Plataformaren (PLENA) bidez izapidetu da, eta, horren ondoren, espedientearen kontratazio-mahaiak lizitazioa esleitzeko proposamena egin du TDiferencia S. Coop. entitatearen alde.

Ezarritako epearen barruan, honako lizitatzailer hauek aurkeztu zuten eskaintza:

- TDIFERENCIA, S. COOP.
- EL PUNTO GUNEA CENTRO NAVARRO DE CREACION, S.L.

Kontratazio-mahaiak Baldintza Agirian ezarritako irizpideen arabera baloratu zituen eskaintzak, eta emaitza hau izan zen:

	El punto gunea centro navarro de creacion S.L	TDiferencia S. Coop.
IRIZPIDE KUALITATIBOAK - CRITERIOS CUALITATIVOS		
1) Kultur zikloa kudeatzea eta koordinatzea / Gestión y coordinación del ciclo cultural.		
Deskribapena, administrazioekin edo inplikaturako eragileekin izanen diren koordinazio prozesu eta bitartekoena/ Descripción del proceso y medios de coordinación con las administraciones o agentes implicados.	8,7	13
Kudeaketarako eta koordinaziorako bideratutako baliabide materialak / Recursos materiales destinados a la gestión y coordinación.	6,3	8,7
2) Ikuskizunen tipologia eta ezaugarriak / Tipología y características de los espectáculos.		
Proposamenaren dibertsifikazioa /Diversificación de la propuesta	13	13
Ikuskizunen gaietan printzipio horizontala izatea/ Presencia de principios horizontales en la temática de los espectáculos	4,5	4



Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetako delat egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:
<https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)
Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-17 14:01:04

3) 2023. urtea baino lehenago eginiko zikloetan enpresaren esperientzia eta ibilbidea /		
Experiencia y trayectoria de la empresa en ciclos similares antes de 2023	3,5	4,5
Guztira (irizpide kualitatiboak) / Total (criterios cualitativos)	36	43
FORMULA OBJEKTIBOEN BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK CRITERIOS CUANTIFICABLES MEDIANTE FÓRMULAS OBJETIVAS		
Euskarazko C1 maila/C1 de euskera	5	
Enpresa kudeatzailearen plantillan dauden emakumeen ehunekoa/ Porcentaje de mujeres en plantilla de la empresa gestora	5	5
Eskaintza ekonomikoa /Oferta económica	14,1	40
Guztira (irizpide objektiboak) / Total (criterios objetivos)	24,1	45
GUZTIRA/TOTAL	60,1	88

Proposamenak baloratu ondoren, Tdiferencia, S. COOP. enpresak guztizko puntuaziorik altuena lortu du, bere proiektu teknikoaren sendotasunean eta eskaintzaren eraginkortasun ekonomikoan oinarrituta.

Arlo teknikoan, nahiz eta bi lizitatzailleek pareko esperientzia eta edukien kalitatea egiaztatu, Tdiferencia, S. COOP. enpresaren proposamena hobea izan da, zorroztasun eta argitasun handiagoa izateagatik. Planteamendu zehatzagoa da, orokortasunak saihesten dituen eta kudeaketa-egitura operatibo eta bideragarri bat zehaztasunez definitzen duena. Proposamen honetan hiru mailatako lan-eredua eta rolen esleipen zehatza nabarmentzen dira bereziki, eta horrek tokiko eragileekin elkarrikteta arina izatea eta kontratua ziurgabetasunik gabe gauzatzea bermatzen du.

Halaber, bere 72.500 euroko eskaintza ekonomikoa (BEZik gabe) erabakigarria izan da, Administrazioarentzat proposamen onuragarriena baita. Zenbateko hori merkatu-parametro egokietan kokatzen da, eta zerbitzuaren bideragarritasun osoa ahalbidetzen du, eskaintza anormal edo neurrigabearen presuntzioan erori gabe.

Balorazioa ikusita, kontratazio-mahaiak kontratua TDIFERENCIA, S. COOP. sozietateari esleitzeko proposamena egin du, esleipenaren zenbatekoa 87.725,00 eurokoa izanik (BEZa barne).

Horrenbestez, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 100. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d eta 44. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuaren 3 eta 11 artikuluek emandako ahalmenez baliatuz, honako hau,

ERATZI-DUT:



CSV: 983E58C0F7940FFC

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracioneconomica.navarra.es/PresupuestoCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-17 14:01:04

TDIFERENCIA, S. COOP. enpresari (IFZ: F71157515) esleitzea Gora-Gora Fest kultur zikloa

antolatu eta kudeatzeko kontratua, 87.725,00 eurokoa (BEZ barne), B30002 B3200 2262 334103 "Familiantzako euskarazko kultur jarduerak sustatzeko *Gora-gora Fest* programa" 2026ko gastuen aurrekontuko partidaren kontura.

Esleipenaren eraginkortasuna etenda geratuko da 10 egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratua 15 egun naturaleko epean formalizatuko da, etendura-epe hori amaitu ondoren.

2. 2026ko ekitaldiko kreditu-erreserban sobratutako 10.275,00 euroko zenbatekoa eta 2027, 2028, 2029 eta 2030eko urteetako zenbateko bera ezeztatzea eta askatzea.
3. Ebazpen hau Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.
4. Ebazpen hau helaraztea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu Hartzailatza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kudeatzailera, Euskarabideko Euskararen Azterlan eta Plangintza Estrategikoaren Atalera eta Euskarabideko Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administratiboaren Atalera.
5. Ebazpen honen berri Tdiferencia, S. Coop. eta El Punto Gunea centro navarro de creación S.L enpresari ematea, eta jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez denez, gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioketela Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintza eta Euskara kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Iruñea, 2026ko abuztuaren 17an.

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA

JAVIER ARAKAMA URTIAGA



CSV: 983E58C0F7940FFC

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-08-17 14:01:04